



ZUMAIAKO UDALA

# BALEIKE GUKA

## ZAPIAK GORA!



**ASESORIA ARIN**  
AHOLKULARITZA ETA KUDEAKETA

**M<sup>a</sup> Belen Arrue Lizarralde.**  
**Kolegiatua 3.930 ICAGI**

**ABOKATUA - EKONOMILARIA**



**ZESTOA**

Gesalaga kalea, 22 behea  
T: 943 89 70 99  
M: 657 799 052



**ZUMAI**

Panbita etxezarota, 15 behea  
T: 943 11 71 55  
M: 657 799 052

**30**

URTEKO  
ESPERIENTZIA



asesoriarin@asesoriarin.com

**GORA SANTELMOAK!**



# Gora San Telmo!!

Zumaiako merkataria eta ostalariek  
jai zoriontsuak opa dizkizue!!







# Santelmoak niretzat

YOLI LARIOS

**S**an Telmo jaien inguruko nire lehenengo oroitzapenak barraketakoak dira. Umetan, tiobiboetan bueltaka, behin eta berriz; txurroen usaina inguru guztian; eta ni amorratzen azukrezko kotoia jateko. Izan ere, festetan bakarrik nuen hori jateko aukera.

Ondorengo urteetako irudiak, nola ez, karratudun zapi urdin eta zuria lepogan eta katiuskak jantzita kalera euritan irteten nintzekoak dira, santelmoak gehienetan euritan igaro izanaren sentipena baitut. Baina umeak ginenean horrek ez zigun ardura izaten, ohe elastikoan ez ginen bustitzen eta. A zer oroitzapen onak! *Sobre sorpesak* ere oso gustukoak nituen, oparia ziztrina egokituta ere.

Nire lehendabiziko parrandak ere santelmoetan bota nituen: lagunekin kalean egun osoan, denak uniforme urdina jantzita, eta egun horretarako nuen paga guztia autotxokeetan gastatzen.

Txikitan ez nuen inoiz parte hartu haurren danborradan, baina, gero, 18 urterekin, kuadrillako batzuek izena eman genuen helduen danborradan irten ahal izateko. Hasieran aitzakia besterik ez zen beste parranda egun bat izateko, baina urte hartatik aurrera, urtero parte hartu dut ekitaldi horretan. Ezin dut azaldu zergatik, baina danbor hotsen mendera erori nintzen...

Onartu beharra dut; niretzat ekitaldi oso berezia da, horrenbeste urte pasa eta gero, oraindik ere urduri jartzen nau danborradan ateratzeak, benetan sentimendu berezia sortzen dit barruan. Askorentzako barregarria izan daiteke, baina horrela sentitzen dut nik.

Urte batzuetan danborradako zuzendarietako bat izateko aukera izan nuen, barriken zuzendaria, hain zuzen ere. Ardura handia da horrenbeste pertsona-



Argazkia: PEIO ROMATET

ren aurrean jartzea, erakustea, laguntzea, haserretzea... Baina horrek guztiak benetan merezi du eguna iristean; denok elkarrekin danborradaz gozatzea, zerura begira euririk egin ez dezan, tarte horretan behintzat.

San Telmo kalean danborradako partaide guztiak jarrita, zuzendariak aulkia- ren gainean, danbor joleak eta ikusleak isilik, eta *San Telmo Martxa*-ren doinuak hasten. Momentu hori ikaragarria da. Ondoren, Erribera kalean sartu nahian, jendez gainezka, ezin kabitu, eta jendetza abesten hastea berriro *San Telmo Martxa* hastean. Magikoa da!

Zuzendari gisa, benetan hunkigarria da une hori. Herritar asko negarrez, emozioz gainezka, gazte guztiak alde batetik bestera dantzan, balkoi guztiak jendez beteta... Niretzako oso zirrargarria da, eta ohore bat hori bizi izana.

Ilara hauen bidez txalotu nahiko nuke danborrada aurrera eramaten duen boluntario talde txikia, gaur egun lagun bihurtu diren pertsonak. Benetan eskertzekoa da beraiek egiten duten lana, musu truk jarduten direlako, euren aisialdiko ordu asko eskainita, danborradak ondo atera daitezten.

Bereziak dira santelmoak denontzat, herritar gehienek hartzen dugu parte festetan, baita urte guztian zehar kanpoan bizi direnek ere, egun horietan herrira itzulita. Ekitaldi ugari egoten dira egunero, mota guztietakok: bertso saioak, elizkizunak, dantzak, bertsio gaua... Eta guztiak musikaz lagunduta; zer izango ote liriteke santelmoak muskarik gabe?

Aurten ere elkar ikusiko dugu guztiok herriko kaleetan, gure festa kutunaz gozatzen.

**Ondo pasa festak eta gora San Telmo!**

**«Bereziak dira santelmoak denontzat, herritar gehienek hartzen dugu parte festetan, baita urte guztian zehar kanpoan bizi direnek ere, egun horietan herrira itzulita»**



Gora San Telmo!



**txopa**  
GASTROLEKUA

Erreserbak: 943 574 098 | 644 971 228





## «Ezusteko atsegina izan da bandera igotzeko hautatzea»

*Pello Etxabe izango da aurtengo santelmoetan bandera igoko duen herritarra. Itsasoan bizitako guztia gogora ekartzeko balio izan dio izendapenak.*



**Santa Klarako esne eta jogurt artisau eta osasuntsuak baserritik merkatura zuzenean**

*\*Esne hautsik eta azukre gehigaririk gabe.*

Saimenta puntua:  
San Telmo kalea 24,  
Zumala







**E**zustearen hartu du Pello Etxabek (Zumaia, 1947) San Telmo jaietako bandera igoeran protagonista izateko aukera. Izan ere, duela hamazazpi urte hartu zuen erretiroa itsasoko lanetatik, eta urte horietan guztietan berarekin kontatu ez zuten, berarekin «ahaztuak-edo» izango zirela uste zuen. Aurten, ordea, santelmoetan bandera igotzeko «ohorea» izango du, eta «oso pozik» hartu du albistea.

Ia hogeitaz urte egin zituen Etxabek itsasoan. Aurretik enpresa batean egiten zuen lan, makinak konpontzen: «1986. urtearen ingurua izango zen, eta langabezia handia zegoen Zumaian. Makinak konpontzen aritzen nintzen, eta lan gutxi genuenez, itsasora jo behar izan nuen. Gizonak behar zituzten garai hartan, eta lehorreko lana utzi eta itsasoan hastea erabaki nuen. Ezin nuen ezer egin gabe gelditu jubilatuta bitartean, eta itsasoan soldata irabazteko aukera izango nuen, poz horrekin hasi nintzen lanean».

Itsasokoa lanbide gogorra dela onartu du Etxabek, batik bat, adinean aurrera egin ahala: «Sasoian egonez gero, ondo jasan dezakezu, baina, adinean aurrera zoazela, zailagoa eta gogorragoa egiten zaizu. Soldata lortzeko lan bikotza ere egin behar duzu, arrain kopuru bikoitza arrantzatu... Eta guztiak horrek, asko eragiten dizu azkenean. Lanak eta adinak ez dute barkatzen. Zaharitzen zoazen heinean, sasoia galtzen joaten zara, eta ezin diozu gazteen mailari eutsi».

**«Gizonak behar zituzten garai hartan, eta lehorreko lana utzi eta itsasoan hastea erabaki nuen»**

Hori guztia gutxi ez balitz bezala, itsasoa harro egonez gero, «lan bikoitza egin behar izaten da, eta gainera, beldurra gehitu behar diozu lanari».

Urte horietan, San Telmo festak bizitzeko aukerarik ez zuen izan Etxabek, arrantzarako une apro-

posena izaten baitzen Aste Santu ingurua. «Hilberria egokitzen da San Telmo egunaren bueltan, eta antxoak arrantatzeko proposa izaten da. Beraz, astelehenean baporeak utziz gero, aste guztiko arrantzaren zati handi bat galtzen duzu, eta hori norbaiti gertatu bazaio, badaki zertaz ari naizen...».

Itsasoan bizitako guztia oroitzeke balio izan dio bandera igotzeko hautatua izateak, eta egunean bertan ere itsasoa eta oroitzen guztiak gogoan izango dituela uste du: «Itsasoan egindako lana, han egindako lagunak... denak gogoan izango ditut. Era berean, ilusioa egiten du herritarrek gogoratzea marinela izan zarela», gaineratu du.

Bandera igotzeko momentuan ez du uste urduritasunik irabaziko dionik: «Ez diot inori ezer zor, eta, momentuz, ez nago urduri; eta egunean bertan ere ez dut uste egongo naizenik. Nire festarik gustukoenak dira santelmoak, herrikoienak, zumaia denok bat egiten dugun datak dira, eta ea aurtengoan ere horrela izaten den!».

LABARRA TABERNA

ZUMAIA

est.2016

Pintxo bereziak eta terraza bikaina

GORA  
SANTELMOAK!

Ondartxo plaza 5, Tel. 943-86 04 84

GORA  
SANTELMOAK!Eguneko menua eta  
terrazza ederra

Victoriano Arrate z/g



Pintxoak eta giro jatorra

GORA SANTELMOAK!

Bidasoa kalea z/g · 943-86 22 25

Gora  
santelmoak!Eguneko menua  
eta giro jatorra

Erribera kalea · 943-86 19 73

**Loiola**  
Espacios para vivir

620 66 37 19

info@loiola.com | www.loiola.com



ALTUNA Y URÍA

GORA  
SAN TELMOAK!ARROA BEHEAN  
GARAJEAK ETA LOKAL KOMERTZIALAK SALGAI!  
BEREHALAKO ENTREGA





## Etxabetarrak, zaldizko zumaiarrak

*Ibon eta Eneritz Etxabe aita-alabak dira santelmoetan Itzurun hondartzan jokatzeko zaldi lasterketen antolatzaileetako bi. Lan handia izan arren, «gustura» egiten dutela adierazi dute.*



**GUKA** ate joka dator





**D**uela hogei urte, Zumaian bazen zaldi lasterketak gustuko zituztenen talde bat. Herriz herri ibili ohi ziren horiek, han eta hemen antolatzen zituzten zaldi lasterketan parte hartzen. Ibon Etxabe zen horietako bat. Bururatu zitzaizen Zumaiako hondartza leku aproposa izan zitekeela lasterketa bat antolatzeko, eta pentsatu eta egin. Horrela hasi ziren Zumaiako santelmoetako zaldi lasterketak antolatzen.

Lehen urte haietan, norbanako gisa antolatzen zituzten lasterketak, eta diru laguntzak lortu ahal izateko eskaerak elkarte desberdinen bidez egiten zituzten. Handik urte batzuetara, ordea, egoera erregularizatzeko urratsa egitea erabaki zuten eta elkarte sortu zuten: Motxanekua zaldi elkarte.

Taldeak urte gutxiago dituen arren, aurtengo santelmoetan 20. urteurrena beteko dute Itzurungo zaldi lasterketek, eta herritarrek hitzordu berezitat dituzte festen egitarauan. Urtero-urtero leporaino betetzen dute Itzurun hondartza zaldiez eta ikuskizunaz gozatzera bertaratzen diren herritarrek. Horrek guztiak, ordea, atzeko lan handia du: «Lan asko egiten dugu. Bi hilabete lehenago hasten gara lasterketan parte hartzeko prest daudenen bila. Gero, horien gainean egon behar duzu, etorriko diren zaldien txar telek arautegia betetzen dutela baieztatu, aldundira bidali eta al-baitariaren onespina jaso», azaldu du Etxabek.

Horrez gain, zirkuitua muntatzeak ere lan handia du, eta lagun-

tza behar izaten dute horretarako. «Zinta eta hesola asko jarri behar izaten dira, eta jende askoren laguntza behar izaten dugu horretarako; 30-35 lagun aritzen gara horretan bakarrik», gaineratu du Eneritz Etxabek, Ibon Etxaberen alabak.

Gaur egun, gainera, animaliekin egiten diren ekitaldiek arautegi zorrotza dute: «Oso zorrotz jarriak daude bai zaldiekin eta bai ikusleekin. Hala, zaldientzako gunean ezin dute sartu ikusleek, eta hondartzara jaisteko ere zaldiekin beren bide propioa dute, herritarrengatik berezita».

Kirol ugari probatu eta gero, zaldi lasterketan parte hartzen berandu hasi zela esan du Etxabek: «40 urte ingururekin». Emaztea baserritarra izanik, baserriara joan ziren bizitzera, eta alabak hamar urte zituela, zaldi bat oparitzea erabaki zuten: «Gehiago izan zen niretzako oparia, berezako oparia baino», gogora ekarri du, barrez. «Zumaian baziren zaldi lasterketan ibiltzen ziren batzuk, haiekin hasi nintzen, eta neure burua prest ikusi nuenean, Zumaiako proban parte hartu nuen».

Eneritzek, aldiz, 14 urterekin egin zuen debuta zaldi lasterketan, Abaltzisketan (Gipuzkoa), eta handik urte batzuetara, Abaltzisketan bertan lortu zuen lehenbiziko garaipena. «Betiko ametsa izan dut lasterketan parte hartzea».

**«Betiko ametsa izan dut zaldi lasterketan parte hartzea»**

Abaltzisketakoa, gainera, dagoen berezietakoa da, bi kilometro eta erdiko igoera delako, asfaltuan. Horregatik, lasterketa irabaztea ikaragarria izan zen», azaldu du gazteak.

Zumaiako lasterketa, berriz, arrisku handikoa dela nabarmendu du, «zaldiek abiadura handia harrapatzen dutelako eta bihur-guneak oso itxiak direlako». Sustoren bat edo beste izandakoak direla kontatu du. «Behin, lasterketa batean, lurrera erori nintzen, eta aitak, berriz, bi saihets apurtu zituen». Hala ere, gustuko plaza duela onartu du gazteak: «Azkenean, adrenalina da, eta oso gustukoa dut hori sentitzea».

Garai batean Gipuzkoako eta Euskal Herriko hondartza ugari egiten ziren zaldi lasterketak, baina, gaur egun, Zumaiako bakarrik jarraitzen du. «Zaldiek gastu ikaragarria dute, diruz nahiz denboraz. Askok zaindu behar dira, eta horrek, poliki-poliki, lasterketak gutxitzea ekarri du». Zumaian, ordea, tradizioarekin jarraitzeko asmoa dute: «Jendea gustura etortzen da, santelmoetako ekitaldirik jendetsuena dela esan dezakegu, eta gainera, gero eta neska gehiagok parte hartzen dute. Hasi nintzenean, erreferente bakarra nuen, baina orain, gehiago daude, eta aurtun, adibidez, Zumaian lau emakume izango gara. Hori oso positiboa da», esan du Eneritzek.

«Zumaiako zaldi lasterketak jarraituko dute laguntza dagoen bitartean. Horregatik, zumaiarrei eta inguruko herritarrei santelmoetan Itzurunera bertaratu eta ondo pasatzeko deia luzatu nahi diegu», amaitu du Ibonek.

**Sartaia**  
Janaridenda-okindegia  
**Gora santelmoak!!**

Txomin Agirre kaia z/g • 943-86 01 71



**ASESORIA ZUMAI, S.L.**  
Errenta aitortpena, aholkularitza...

Plaza Amaia 15 bajo  
20750 Zumaia  
Telf.: 943-86 26 24  
Fax: 943-86 27 94  
e-mail: info@zumai.com

**GORA  
SANTELMOAK!**

Ferreteria Galdona S.A.



**Gora  
santelmoak!**

Lanerako arropak, epiak...

JOSE MARI KORTA INDUSTRIGUNA • Pab. A6.1, 2-5 mod. • Tel.: 943-86 11 17

**Xiru**

Ondartxo plaza 3  
943-86 17 05  
747 48 35 52

Argazki eta opari denda

**Gora santelmoak!**



**Muniosoro  
erretegia**  
Eguneko menua eta asteburukoa

**Gora santelmoak!**

Oikia 54, Zumaia • 943-14 78 91







## Zergatik etortzen zara santelmoetan Zumaiara?

### Telmo Trenado



Madrilen du eraikia bizimodua Telmo Trenadok aspalditik, eta sare sozialak ditu bizimodu: eduki sortailea da. Hala eta guztiz ere, santelmoetako datak Zumaiara itzultzeko gordeta izaten dituela onartu du. «Ezin ditut santelmoak galdu, gutxiago Telmo izena izanda. Hori bai, Zumaiako poteoaren erritmoa ezin dut jarraitu dagoeneko, eta lehen edo bigarren asteburuan joaten naiz herrira; ezin dut bietan, luze egiten zait bestela», azaldu du barrez.

Azken urteetan, gainera, are

bereziagoak dira jaiak Trenadorentzat, Madrilgo lagunak eramaten baititu Zumaiara: «Madrilgo eta Zumaiako lagunek bat egitea gustatzen zait, nire bi munduak elkartzen baitira. Gainera, aurrez aurre ez ezagutu arren, nire bideoetan ikusi dira, eta kuriosoa egiten da nola dakizkiten elkarren izenak eta badakiten zein diren. Gainera, santelmoek badute kuadrilla desberdinak batzeko gaitasun hori, eta gaur egun, bakoitzak bere zilborrera begiratzen duen garai honetan, polita da batze sentipen hori».

Ekitaldiz betetako festetan, Trenadok baditu ohitura bihurtutako hainbat ekintza edo galdu ezin dituen hitzorduak: «Lagunekin elkartu eta bazkaria, afaria edota poteoa beti egiten dugu. Horrez gain, familiarekin ere bazkaria egiten dugu San Telmo egunean, eta danborrada ikustera ere joaten naiz; amak irteten du urtero, eta hura ikusi 'beharra' izaten dut. Urte batean ez nintzen ama ikustera irten, eta sekulako pena izan zuen. Ordutik urtero joaten naiz danborrada ikustera».

### Elene Mendizabal



Irailean joan zen Elene Mendizabal Madrilerik ikasketak egitera, baina santelmoetan Zumaiara itzultzeko asmoa du. Hala ere, ez daki itzuli ahalko den, praktikak egiten hasi baita enpresa batean. «Praktikak egiten ari garenok ezin ditugula oporrak hartu esan digute, baina ni saiatuko naiz. Gutxienez, ea apirilaren 8ko eguna libre ematen didaten. Beti egon izan naiz festetan; Norvegiar izan nintzen Erasmus beka bidez, eta handik itzultzeko aitzakia bakarra izan ziren San

Telmo jaiak. Oraingoan ere, gauza bera egiten saiatuko naiz. Ikaragarri gustatzen zaizkit santelmoak. Ea lortzen dudana».

Asko gustatzen zaizkion festak izanagatik, ohitura berezirik ez duela adierazi du Mendizabalek: «Arratsaldeetan poteora ateratzen gara kuadrillakoak, elektrotxarangek jartzen duten giroa gustatzen zaigu. Hori bai, bandera igotzeko egunean kuadrillakok afaria egiten dugu elkartean, eta gero denok batera joaten gara banderaren igoyeraren ekitaldia

ikustera», azaldu du. Bandera igoera eta jaitsiera dira, hain zuzen ere, Mendizabalen ekitaldirik gustukoena: «Herri guztia arrantzalez jantzita ikustea, *San Telmo martxa* entzunez, egoten den giroa... Urrea da une hori. Jaitsieran jende gutxiago izaten da, eta niri izugarrizko pena ematen dit, festak amaitzera doazela esan nahi duelako. Era berean, ordea, oso une berezia iruditzen zait. Zumai guztia biltzen den festak dira, eta polita iruditzen zait hori».

**zumargi**  
elektrizitatea

GORA  
SANTELMOAKI

- Etxebizitzetako eta lokaletako eraberritzeak/konponketak.
- Telebistako antena kolektiboak eta banakakoak.
- Eguzki panelak.
- Ibilgailu elektrikorako karga-puntuak

Etxezarreta 17 behea • ZUMAIA • Tel.: 943 05 47 93







### Mikel Zubimendi



Versaillesen (Frantzia) bizi da Mikel Zubimendi, 2013an Ingeniaritza Industrialeko azken ikasurtea egitera hara joan zenetik. Hamar urtez Zumaia kanpo bizi den arren, Zumaia memoriari mantentzen jarraitzen du hark, eta santelmoak ezinbesteko hitzordua izaten ditu sarritan.

«Aurten repetizioetako asteburuan joatea pentsatua neukan, opor egun bat edo beste hartuta, baina laneko azken orduko agenda aldaketa batzuk direla eta, oraindik ez dakit joaterik izango

dudan. Baina etxetik lana egiteko aukerarekin, agenda pixka bat moldatuz gero, eta treneko wifi-arengan konfiantza osoa izanik, posible litzateke!», azaldu du.

Egunerokotasunetik irten eta lagunekin elkartzeko gustuko Zubimendik, eta festetako egitarauaren barruko ekintza askotan parte hartzen du: txupinazoan, kontzertuetan, danborradan, San Telmo eguneko prozesioan eta mezan, banderaren igoeran eta jaitsieran... «Santelmoen definitzio azkar bat egin beharko banu,

zazpi bat egunez herritar desberdinak elkarrekin festak ospatzen egoten direla esango nuke, urtero, gutxi gorabehera, errepikatu egiten den formatuan. Errepikatzen den formatu bat izateak segurtasuna ematen du, gustukoa dugun hori ezagutzen dugulako, baina, aldi berean, horrek ez du kentzen urte bakoitzean anekdota edo bizipen desberdinak izatea. Gustu eta era askotako herritarrak festan batera egoteak jaiari ematen dion kutsu herrikoa ere berezia da».

### Josu Arano



Duela hiru urte joan zen Josu Arano Kopenhagera (Danimarka), ikasketak medio, eta horiek amaituta, gaur egun, bertan ari da lanean. Aste Santua iristearekin batera, ordea, Zumaia begira jartzen da Arano. «Aurten ere bertan izango naiz, dagoeneko hartua dut hegazkina; urte hasieran hartu nuen!», esan du.

Santelmoak ondo aprobetxatzen saiatzen da Arano, ostiraletik astelehenera etorriz herrira, denbora gehiago izan dezan familiarekin egon eta lagunekin elkartzeko. «Ohitura gisa, Zumaia kuadrillarekin bazkaria egiten dugu larunbatean, eta banderaren jaitsierara ere joaten

gara, zumaia ia guztiak bezala». San Telmo jaietako oroitzapen «oso onak» dituela dio Arano: «Sozialki oso bereziak dira; zumaia arteko harremana esutzen da festetan, eta xarma berezia dute. Urtean hirutan itzultzen naiz etxera, udan, Gabonetan eta santelmoetan, eta lagunak libre dauden garai bakarra izaten da festetako. Lagunekin denbora gehien pasa dezakedan ueña da, eta asko gustatzen zait hori. Izan ere, santelmoak oso bereziak dira zumaia irratiz, eta 'kontratu' gisako zerbait sinatuta dugu festetan ahalik eta gehien irteteko kalera. Oso polita da hori», amaitu du.

### Ainhoa Azpeitia



Bizitza aldaketa handia egin zuen Ainhoa Azpeitiak, bere familiarekin batera, 2023ko uztailean. Izan ere, Zumaia Coloradogatik (Ameriketako Estatu Batuak) aldatu zuen, eta Lovelanden bizi da orduetik.

Senarra eta biak gaztelaniako irakasle gisa ari dira lanean han-

go eskola batean, eta, beraz, aurtengo santelmoetan ezingo dute Zumaia festez eta giroaz gozatu. Hala ere, familia gertu izango dute, bisitan joango baitira Lovelandera.

Dena den, San Telmo festen falta sumatuko duela onartu du Azpeitiak: «Batik bat, kuadrillakoe-

kin batera egiten genituen bazkariena, eta gurasoekin batera olagarro zopa jatera joaten ginen uneena. San Telmo festetan herrira eta herritarrak nola girotzen diren ikustea oso polita izaten da. Gehien gustatzen zaidana kaleko txaranga izaten da, baita bandera jaitsiera ere».

Clinica Dental - Hartz Klinika



**ANE IBARRETXE**  
HORTZ KLINIKA



ESTETIKA  
ORTODONTZIA  
PERIODONTZIA  
IMPLANTOLOGIA  
ODONTOPIEDRIA  
PADI  
BERRERAIKI  
BERRESKURATU  
MANTENDU





# Ainhoa Altzibar: “Makinekin saiatu diren arren, ez dituzte konbentzitu, eta garbi gelditu da hobe dela eskuz konpontzea sareak”

*Marinelen zaindaria da San Telmo, baina marinel horiek ezingo lukete lanik egin sareak puskatuta izanez gero. Sareak konpontzen aritzen da Ainhoa Altzibar (Zumaia, 1965) Getariako portuan.*



**GUKA**

ZERBITZUAK



**zarena plazara**

[www.gukazerbitzuak.eus](http://www.gukazerbitzuak.eus)





### Nola hasi zinen saregile lanean?

2002. edo 2003. urtea izango zen. Nire senarra arrantzalea zen, itsasontziko patroia. Hala, sareak konpontzeari ekin nion. Hiru bat urtez aritu nintzen horretan, eta sareak josten ikasteko denbora bakarrik eman zidan. Gero, ordea, banandu egin ginen, eta lana uztea erabaki nuen. Duela hiru urte berriro hasi nintzen, eta horretan nabil.

### Zein portutan aritu zara lanean urte horietan?

Getariako portuan aritu naiz beti, baina egokitu izan zait Oriora joatea, haiek laguntza behar eta eskatu izan dutenetan. Gaur egun, ordea, ez da arrainaren salmentarik egiten Orion, eta Getariara joaten dira sareak konpondu behar badituzte. Konponketa handiak direnean, berriz, elkarri laguntzen diogu beti.

### Nolakoa da saregilearen egunerokotasuna?

Adibidez, orain [joan zen astean egindako elkarrizketa da] guardian nago, eta horregatik, gaur gauean edozein ordutan jar daitezke harremanetan nirekin itsasontziren bateko sarea puskatuz gero. 07:30ean Getariako saregilearen taldera idazten dugu, lanera joaterako dena ondo antolatuta izateko; horrela, itsasontziaren izena, ontzia portura iritsi al den, nolako konponketa behar duen sareak... dena zehaztuta gelditzen da. Izan ere, sarea hamaika modutan hautsi daiteke, eta beraz, horren arabera konponketa egin behar da, eta baliteke pertsona bat, bi edo hiru behar izatea. Itsasontzi bakoitzak bere saregile arduraduna izaten du, eta arduradun hori da informazioaz eta kudeaketaz arduratu behar dena.

Hala, abisua jaso bada, lanera joaten gara 09:00etan, eta 12:30era arte aritzen gara; bazkalteko tartea izaten dugu segidan,

eta 14:00etan berriro hasten gara lanean. Amaitu arte edo argia dagoen bitartean jarduten gara. Tentsioa izaten dugu itsasontziak presa badu, itsasora azkar itzuli behar badu. Egun batzuk lasaiak izaten ditugu, eta horietan lonjan bestelako lanak egiteko aprobeztatzen dugu. Beti dago zeregina.

### Eguraldiak ere eragina izango du, ezta?

Eguzkitarako naiz euritarako prest egon behar izaten dugu. Eguzkitarako itzalkinak ditugu, eta euria ari badu, ari duen euri kopuruaren arabera, sareak gordetzeko lekura sartzten gara, edota karpak ere jartzen ditugu. Ekaitzik ez bada, behintzat, karpa horiek ondo eusten dute.

### Fisikoki gogorra al da lana?

Postura edo jarrera zaindu behar dugu. Garai batean aulki oso baxuak erabiltzen genituen, baina orain, aulki bereziak ditugu, altuagoak, tolesgarriak; poste gisako zerbait dute, eta bertan katigatzen dugu sarea. Aurreko aulkietan hanketan katigatu behar izaten genuen sarea, eta orain, poste horri esker, errazago egiten dugu lana. Hala ere, jarrera zaindu behar dugu, oharkabean sorbaldak eta bizkarra gogortzen zaizkigulako, eta noizean behin, horiek askatzea komeni da.

Asko laguntzen digute egun ontzietan lan egiten duten senegaldarrek. Izan ere, ondo ulertzen dute sarea, eta ontzia portura iristerako, sarearen arazoa non hasten eta non amaitzen den adierazita izaten dute, plastiko tira batzuen bitartez. Oso abilak dira.

### Eskuz egin beharreko lana da saregileena, baina noizbait aritu al zarete makinekin?

Asmatu zuten sareak josteko makina bat... ez zuen arrakastarik izan. Alde batetik eta bestetik sare zati desberdinak hartzen zituen, eta josi egiten zituen, baina odolki moduan gelditzen zen. Horrez

gain, makina bera mugitzeko eta erabiltzeko norbait behar zen. Makinekin gure lana ordezkatzeko saiatu diren arren, ez dituzte konbentzitu, eta garbi gelditu da hobe dela eskuz konpontzea sareak.

### Lana bera eta lana egiteko modua, beraz, ez dira gehiegi aldatu urteetan zehar.

Ez, aldaketa nagusia emakumeetan izan da; arrantzaleen emazteak, alabak, amak... ziren lehen saregile aritzen zirenak; etxeko emakumeak, musu truk lanean. Orain, behintzat, poliki-poliki lortu dugu soldata izatea. Baina gero eta pertsona gutxiago gaude; Getarian, adibidez, iaz hamalau ginen, horietatik bost jubilatuz ziren, eta orain bederatzi gaude. Beste bi erretiroa hartzekoak dira aurrean...

### Zuen ogibideak zer-nolako etorkizuna duela uste duzu?

Jende berririk ez da animatzen saregile lana egitera. Egia da ikastaroak antolatzen dituztela ziurtargiriak lortu ahal izateko, baina pertsona gehiago behar dira. Lan gehienetan gertatzen den bezala, ikastaroetan ikasi dezakezu zerbait, baina gero eginez ikasten da gehien. Etorkizuna? Gauza bakarra dago garbi: arrainak sarearekin arrantzatzen dira. Ondo dago ikastaroak ematea, baina hori baino gehiago eskaini behar da: etorkizunerako zerbait. Hipoteka bat ordaindu behar baduzu edo familia bat sostengatu, soldata behar duzu, eta hori ziurtatu behar da. Zaila da.

### Iristear dira santelmoak. Nola bizi dituzu festak?

San Telmo ez da Zumaiaiko patroia, baina herrian maiteena da. Gaztetan beste modu batera bizi nituen; orain, lanaren eta gogoaren arabera bizi ditut. Hala ere, bizpahiru ekitalditara joaten naiz: banderaren igoerara, eta San Telmo egunean, San Telmo kalera hamaiketako egitera.



# Azkue

Profesionalak gara



## GORA SANTELMOAK!

943-86 26 51  
www.ricardoazkue.com







2008ko txupinazoa.



San Telmo kalea festetan, 2004an.



Olagarro zopa banatzen, 2008an.

## SANTELMOAK, IRUDIETAN

**S**antelmoak Zumaiako festa kutunenak dira, hori ezin du inork dudan jarri. Marinel jantzi urdinek eta kresal usainak herria hartzen dute Pazko astean. Bi asteburutan zehar hamaika ekitaldi izaten dira herrian, eta horien artean badira tradizio bihurtu diren batzuk: San Telmo ermitaraino egiten duten prozesioa, Kofradiako plazako dantzaldiak, Itzurun hondartzako zaldi lasterketak, helduen nahiz haurren danborradak... Eta nola ahaztu Juan Mari Granados *Kanikas*-ek saxofoiarekin alaitutako uneak?

Festen antolaketan egindako aldaketek eta hobekuntzek herritarren parte hartzea handitzea ekarri dute, gaur egun zumaiarrak izanik San Telmo jaien oinarria. Santelmoen historian gauzatutako ekitaldiek, berriaz, milaka irudi eta oroitzapen utzi dituzte, eta Baleike Gukak horietako batzuk bildu ditu, herritarren oroimena astintzeko asmoarekin.



2001. urteko prozesioa.





1994ko herri kirol saioa.



Juan Mari Granados *Kanikas*, 2000 urtean.

*aholkulariak*  
**UNANUE**  
ZERGAK | LABORALA | AUDITORETZA | ENPRESA ETA AUTONOMOAK

**GORA SANTELMOAK!**



Erribera kalea 6, ZUMAIA | Tel: 943-86 09 60 | unanue@unanue.eus | www.unanue.eus





# Egitaraua

## Apirilak 5, ostirala

**18:00.** Pala egokituko Binakako Txapelketa, Odieta pilotalekuan.

**21:00.** Txosnagunean DJ gaua, Huegun, Luji, Maitx eta Goiko disko jartzaileekin.

**22:00.** Bertso jaialdia Zumaietan, Maialen Lujanbio, Andoni Egaña, Nerea Ibarzabal, Joanes Illarregi, Xabat Gallettebeitia eta Sustrai Colina bertsolariekin. Gai jartzailea Jon Maia izango da.

## Apirilak 6, larunbata

**11:00.** Udal Txistulari Bandaren kalejira.

**12:00.** San Telmo jaien hasierako txupinazoa, San Telmo ermitaren inguruan. Jarraian, musika eskolako trikitilariak lagunduta, herrira jaitsiera. Ondoren, hamaiketako Itxas Gain elkartearen eskutik. Gero alaitzen ariko dira trikitilariak eta bertso eskolako ikasleak.

**12:30.** Zumai txarangaren eta trikitilarien kalejira.

**13:00.** Musika eskolako haurren eskutik, euskal dantzen emanaldia, Ondartxon. Euria eginez gero, Zumaietan izango da.

**13:45.** Zumaiako arku dantza, Kofradiako plazan.

**14:30.** Gazte bazkaria, herri eskolako frontoian. Bazkalondan, Elektrotxorongo elektrotxarangarekin kalejira.

**17:00.** Itsasoko herri kirolak haurrentzat, Odieta.

**18:00.** Iraunkorrak txarangarekin kalejira.

**21:30.** DJ saioa Murxi, Saizar, Huegun eta Guijarekin, Torreberri gaztetxean.

**22:00.** Gazte Eguna ospatuko dute txosna eremuan, eta Perlata, Nallta Fola eta Skareggekasko taldeek kontzertuak eskainiko dituzte.

**22:30.** Bide Batez taldeak dantzal-



dia eskainiko du, Kofradiako plazan.

## Apirilak 7, igandea

**08:00.** Ustekabe txarangarekin kalejira.

**11:00etan.** Trikitxas bikotearekin trikiti kalejira.

**11:30.** Hamaiketako herriko arrantzale zaharrentzat.

**12:00.** Sagarbide ikastetxetik irtenda, umeen danborrada.

**12:30.** Ustekabe txarangaren saioa.

**17:00.** Buruhandien eta erraldioen kalejira txistulariekin, udalletxetik hasita. Ondoren, Porrusaldia taldearen erromeria, Torreberri.

**17:30.** Profesionalen esku pilota partidak, Aitzuri pilotalekuan.

**18:00.** The Grace of Dionysus, Pertz eta Biderbost taldeen kontzertuak, txosnagunean.

**18:30.** Ustekabe txarangarekin kalejira.

**19:00.** Trikitxas bikotearekin trikiti kalejira.

**22:15.** Helduen danborrada, Sagarbide ikastetxetik irtenda.

**22:30.** Joselu Anaiak taldearen dantzaldia, Kofradiako plazan. Gauerdian, Pello Etxabe arrantzale ohiak bandera igoko du Ko-

fradian. Danborrada amaitutakoan, Joselu Anaiak taldearen dantzaldiak jarraituko du Kofradiako plazan.

**00:30.** DJ saioa, txosnagunean.

## Apirilak 8, astelehena

### San Telmo eguna

**10:15.** Prozesioa, San Telmo ermitara.

**10:30.** Meza Nagusia. Itsasoaren aurrean otoitza egingo dute, eta ondoren, parrokiara itzuliko dira. Bertan, San Telmoren erlikia gurtuko dute. Ondoren, hamaiketako izango da.

**11:30etik 14:00etara.** Umeentzat puzgarriak, Odieta.

**12:30.** Incansables txaranga herriko kaleetan zehar.

**16:30etik 19:00etara.** Umeentzat puzgarriak, Odieta.

**18:00.** Plaza dantzak, Kofradian.

**18:30.** Incansables txarangarekin kalejira.

**19:00.** Profesionalen zesta punta finalak, Aitzuri pilotalekuan.

**19:30etik 22:30era.** Lotxo taldea, Kofradiako plazan.

## Apirilak 12, ostirala

**17:00.** Igel-toka eta Pote Txapelketa Irekia, Eusebio Gurrutxaga plazan.

**19:30.** Irrintzi txapelketa feminista eta brindisa, Amaia plazan.

**20:00.** Bertsofest, Oxford aretoan.

**21:00.** Bertso gaua, txosnagunean.

## Apirilak 13, larunbata

**10:00.** XXIV. Olagarro zopa lehiaketa, Eusebio Gurrutxaga plazan. Ekitaldia alaitzen arituko dira Elustondo anai-arreba trikitilariak.

**11:00.** Hamaiketako musikatua Joxe Mendizabalekin, Kofradiako plazan. Jarraian, kantu kalejira.

**14:00.** *Denak txosnetara!* argazkia.

**14:30.** Herri bazkaria txosnagunean. Ordu berean, ikasle eta gazte bazkaria Torreberri gaztetxean. Bazkalostean, Edu Zardoyaren kontzertu akustikoa.

**17:30.** Herriko txarangarekin eta Pello eta Nikolasa erraldoiekin kalejira.

**18:00.** Urrezko Aizkolarien XXVII. Banakako Txapelketaren lehen kanporaketa, Odieta pilotalekuan.

**18:30.** Herriko txarangarekin kalejira.

**21:30.** RPG-7, Habemus Papam, Istilu, Hoben eta Ballium taldeen

kontzertuak, Torreberri gaztetxean.

**22:00etatik 01:00etara.** DJ Davilaren saioa, Kofradiako plazan.

**22:30.** Akaleia, EZEZEZ eta Rukula taldeen kontzertuak, txosnagunean.

## Apirilak 14, igandea

**08:00.** Goiz soinua, Zumai txarangarekin.

**11:00etatik 13:30era.** Santelmotako XXI. Scalextric Txapelketa, Oxford aretoan.

**12:00.** Zaldi lasterketak, Itzurun hondartzan.

**12:00.** Sutan txarangarekin kalejira.

**16:30etik 19:00era.** Santelmotako XXI. Scalextric Txapelketa, Oxford aretoan.

**17:00.** Jolasak eta tailerrak, Eusebio Gurrutxaga plazan.

**18:00.** Sutan txaranga.

**18:30.** Trainerillen estropadak, gizonen XXXIX. San Telmo saria eta emakumeen X. San Telmo saria.

**19:00.** Babarrunba taldearen kalejira.

**22:00.** Sukar taldearen erromeria.

**00:00.** Bandera jaitsieraren ekitaldia, Kofradian.

ESKUALDEKO OPERATZAILEA  
**mara.eus**

# GORA SAN TELMO!

 ekin.elek

Erribera 6 - Zumaia  669 748 083 / 943 143 097 / telefonía@ekinsl.com

**mara**  
TELEFONIA - INTERNET

**ekin**  
elektrositatea, s.l.




# Casa BASUSTA

Santiago auzoa, 18  
943-86 26 11



Etkez-etxeko  
zerbitzua



Sartu gure **online dendara**  
eta egin zure erosketak  
etxetik

[www.floristeriabasusta.com](http://www.floristeriabasusta.com)



40 urte baino gehiagoko  
esperientzia sektorean



Landareak  
Dekorazioa  
eta opariak  
Hileta zerbitzua  
Lore-sortak  
Ezkontzak





# Decotena

zure ametsak gure helburu

## **KOLTXOIAK FABRIKATZEN DITUGU**

Ohea janzteko behar duzun  
guztia eskaintzen du Decotenak

**NEURRIRA EGINDAKO  
KOLTXOIAK**

**BURKOAK**

**IZARAK**

**EDREDOIAK**



**Gora  
San Telmo  
jaiak!**



**ZUMAIA**

**AZKOITIA**

**BERGARA**

**ELGOIBAR**